

## PARROKIKO BI KANPAIA HAUNDIAK KONPONTZERA ERAMAN DITUZTE ETA BI HILABETE ETA ERDIREN BURUAN BUELTAN IZANGO DIRA

Lanak 34.000 euroko aurrekontua dute eta besteak beste, 2013an egindako diru biketari esker egingo dira Palentziako enpresa espezializatu baten instalazioetan

Gogoan dugu askok 2013ko udazkeneko irudi ikusgarri bat. Orduan, Jasokunde eta Sagarrondoko Amaren parroko dorreko bi kanpaia txikiak konpontzera eraman zituzten. Kanpandorretik beharrezko operazioa konplikatua izan zen baina arazorik gabe burutu zen.

Orain ere, antzeko operazioa burutu behar izan da. Izan ere, martxoaren 3an, kanpandorreko bi kanpaia haundiak, 1 eta 2 zenbakidunak, bertatik jaitsi dituzte eta Palentziako Campanas Quintana enpresa espezializatua- ren eskuetan daude orain.

Bertan, kanpaiak garbitu egingo dituzte eta kanpai-etxea Afrikako Gabon herrialdeetik ekarritako buvinga zuhaitzaren egurrezko batengatik aldatuko zaie. Aldi berean, ezkila-mihian eta bandeo elektronikoaren sisteman hobekuntzak burutuko dira.

Konpontzera eraman diren kanpaiak 147,5 eta 135 zentimetroko diametroak dituzte eta 2.027 eta 1.400 kiloko pisua, hurrenez hurren.

Bi hilabete eta erdiko epea dute konpontzera eraman diren kanpaiak eta 34.000 euro inguruko aurrekontua. Diru horren zati bat Udalak jarriko du eta beste zati bat 2013. urteko udan egin zen diru-bilketatik aterako da.





**Anaka kalea, 11**  
943.61.54.57



**San Pedro kalea, 49**  
943.64.54.57

**ETA LASAITASUNEAN... BETIKO INGURU GOXOAN**